

ALPES

TRES TRESMILES DE LOS ALPES DEL SUR


(Plan de entrenamiento para un cuatromil)

Luis Alejos



MONT THABOR (3181m)

Desnivel: 1500. Tiempo: 6,45. Itinerario: camino




Aproximación

En Briançon (1200) coger dirección Col de Mongenevre, entrando por La Vachette al valle de la Clarée. Antes de Néva-che dirigirse al Col de l'Echelle (1766), descendiendo hasta el enlace con el valle Etroite (1500) (unos 30 km). El acceso está en mal estado, parece que no ha vuelto a ser asfaltado desde que en 1945 se anexionó Francia este territorio de la vertiente italiana. La pista sube fuerte, discurrendo luego junto al río a través de un bosque de alerces. A unos 4 km del desvío aparecen en un núcleo de antiguas granjas (1765) los refugios del CAI y del CAF. A lo largo del valle hay varias zonas de acampada. La más próxima además de estar junto al río tiene sombra y fuente.

Ascenso

Desde la zona de acampada (1700) se alcanza de inmediato la aldea (1765). Un cartel que indica Mont Thabor 5 horas invita a seguir la suave pista que concluye junto al puente de la Fonderie (1900) (1,00). De aquí arranca el ancho camino de los peregrinos, siempre evidente y jalonado con cruces. Avanza hacia la cumbre, visible (NO) en casi todo el recorrido. Tras pasar junto a un refugio privado y superar el límite del arbolado, se cruza el torrente sobre un puente (2200) (1,45).




Ganando después altura por la ladera herbosa del Vallon du Duner, se contempla a la derecha las recortadas aristas del grand Sérú y a la izquierda los desplomes del Grand Adret. Al alcanzar el Col des Meandes (2718) (2,45) se puede rellenar la cantimplora mientras se vadea una torrentera. Afrontando luego una pronunciada pendiente, seguida de una cresta de roca y grava, tras un corto nevero perenne llega la breve pendiente que desemboca en la ermita contigua a la cima del Mont Thabor (3181) (4,00). Con el horizonte despejado se domina la pirámide del Viso y los macizos de Oisans, Vanoise, Mont Blanc y Monte Rosa.

Descenso

Más abajo de la ermita arranca una ruta alternativa que inicialmente desciende al amplio Col de Valmeinier (2943) (4,15). Aunque existe un itinerario con sendero, es más rápido bajar directo (S), por terreno sin balizar y aprovechando los neveros al Lac Blanc (2614) (5,00). Contando con la opción de pasar asimismo junto al Lac Lavoir (2280), se enlaza en el puente (2200) (5,45) con el camino de subida, retornando por él al punto de partida (1700) (6,45).

Observaciones

El Mont Thabor se encuentra en una zona de transición climática entre Los Alpes del Norte y los del Sur. La ermita próxima a la cumbre, originaria del siglo XI, sirve para dormir si se desea realizar una travesía o acelerar la aclimatación. Es una montaña muy concurrida y perfectamente esquiable, en la cual confluyen cuatro rutas balizadas. El cercano Pic Thabor, pese a ser algo más alto, es poco frecuentado, pues exige una corta escalada.



POINTE SOMMEILLER (3350m)

Desnivel: 1200. Tiempo: 5,30. Itinerario: camino

Aproximación

Volver del valle Etroite a la carretera y proseguir el descenso entrando de inmediato, sin requisitos aduaneros, en territorio italiano. Enseguida se llega al nudo de comunicaciones transalpinas de Bardonnècchia (1300). Una carretera muy estrecha con curvas de nula visibilidad remonta un tupido bosque hasta la aldea de Rochemoles (1600) (6 km). Aquí desaparece el asfalto. Una pedregosa pista gana rápidamente altura, emprendiendo luego una larga travesía sobre un embalse y entre pinos. Al volver al eje del valle cruza el río sobre un puente, vuelve a elevarse, atraviesa otro puente y alcanza el llano de Adret (2160) (9 km de pista) donde se encuentra el Refugio Scarfiotti. Se puede acampar al pie de una soberbia muralla dominada por la altiva Aiguille Scolette.

Ascenso


Del refugio parte un sendero que se dirige hacia la ladera roturada por la pista, discurrendo entre el torrente y los prados. Al elevarse vadea un curso de agua y gana altura por una empinada loma cubierta de arándanos. En el Plan des Morts el camino se incorpora a la pista, que ahora avanza recta y con suave pendiente. En el siguiente resalte reaparecen las curvas y el atajo. Volverán a coincidir en el collado de acceso al Vallon du Fond, donde aparece la cumbre. La pista va hacia ella, cruzando el



del cartel (2650) (4,30) el itinerario de ascenso se regresa al llano de Adret (2160) (5,30).

Observaciones

En el pequeño glaciar situado junto al Col Sommeiller (2993) quedan vestigios de una fracasada estación de esquí de verano. Con ella desapareció la carretera asfaltada que era de peaje a partir del llano de Adret. En la actualidad constituye un espacio idóneo para moverse con bicicleta de montaña. El itinerario descrito resulta adecuado para practicar el esquí de travesía.



▲
En la página 61.
En el Glaciar de Lis Oriental. Detrás aparece el Liskamm Este.
Arriba.
Weisshorn, desde el Col del Balmenhorn.
A la izquierda.
Ermita del Mont Thabor
▼

ROCHEMELON (3538m)

Desnivel: 1340. Tiempo: 4,45. Itinerario: camino

Aproximación

De vuelta a Bardonnèchia (1300) seguir el curso del Dora Ripaire hasta Susa (500) (35 km), donde confluye la antiquísima ruta transalpina del Col del Mont Cenís. El desvío a tomar está señalizado con carteles que indican el nombre de la cumbre o el del refugio. Al comienzo es una carretera muy angosta que va recorriendo aldeas, luego gana anchura. Al trazar una amplia línea quebrada para salir del profundo valle, aparecen estratificadas las especies arbóreas: frutales, nogales, castaños, robles, fresnos, abedules, hayas y coníferas, con predominio del alerce.

A los 14 km (1800) se desgaja el ramal que conduce al albergue del Truc y la carretera se convierte en una pista excelente. Unos 3,5 km después se llega a una pradera con fuente (2100) de donde parte el teleférico que abastece al refugio. El estado de la pista empeora en el corto tramo que falta para completar en La Riposa (2200) los 19 km de recorrido y los 1700 metros de desnivel. Junto a un edificio en ruinas hay espacio para aparcar. También destaca una cruz.

Ascenso

Desde abajo se vislumbra el refugio sobre un contrafuerte y se ve la cima. Toda la subida discurre por el crestón meridional del Rochemelon, permaneciendo generalmente en su flanco oriental. Al comienzo se progresa por una extensa y pendiente ladera

herbosa. El camino dibuja amplios zigzag cortados por atrevidos atajos. Así se llega al Refugio Ca d'Asti (2854) (1,30), dependiente del obispado de Torino. Se nota la carencia de fuente, mas no falta una ermita. Acto seguido se remonta una ladera pedregosa que culmina en un rellano con otra cruz (3306) (3,30). Entonces reaparece la pirámide cimera; vista de cerca resulta imponente. El camino, tallado ahora en la roca, avanza bajo una afilada arista. Luego supera la corta cara NE mediante una sucesión de aéreos pasillos, protegidos a veces con cuerdas fijas.


De este modo se alcanza la humanizada cumbre del Rochemelon (3538) (3,00), donde destaca la colosal

torrente sobre un puente. Cuando serpentea para subir al collado, un cartel señala la ruta del refugio abierto de Galambra y la Pointe Sommeiller. Hasta aquí se aventuran los coches (2650) (1,30).

El itinerario balizado cruza de inmediato un arroyo, remonta una ladera herbosa y deja a la derecha el acceso al caserón de Galambra, que destaca en la depresión del cordal. Acto seguido se superan las pedregosas lomas que conducen al Col Superior de Fourneaux (3159) (2,45). Finalmente, por la senda del cresterío se progresa hasta la Pointe Sommeiller (3350) (3,15).

Descenso

Aunque el camino es muy cómodo, una variante más directa consiste en deslizarse desde la cima por un pronunciado corredor, saliéndose enseguida hacia la izquierda para evitar el tramo más pendiente y descompuesto. Prosiguiendo el descenso por la pedregosa ladera se llega a un rellano herboso (2950) (4,00) donde brota un arroyo. Siguiendo luego su curso por un barranco se enlaza con la pista. Retomando a la altura



LAUMILAKO BAT IGOTZEKO

Aitor eta Ana Alejos

LAUMILAKO bat egin nahi genuen baina urte bat goi mendia zapaldu barik generatuz, egin baino lehen entrenatu eta altuerara moldatu behar izan genuen. Horrela, mila metro baino gehiagoko desnibela eta elur problemarik gabeko hiru hiru milako bat erraz igotzeko plana prestatu genuen.

Egun batetik bestera, igoera laburragoa -hortaz, gogorragoa ere- izan behar zen. Bestalde, beharrezkoa zen gailur bakoitzean ordu bat gutxienez egotea. Guzti hau eginda, berehala lortu genitzakeen bi helburuak: erresistentzia fisikoa gehitzea eta altuerara egokituak egotea.

MONT THABOR

Euskaditik mila kilometro baino gehiagoko bidaia denez, Alpeetara sartu baino lehen Mediterraneo itxaso aldean geldialdiren bat edo beste egitea ondo dator. Azken bainua Serre-Ponçon izeneko lakuan hartu genuen, Briançonetik datorren Durance ibaiaren azter-ak jarraituz gindoazela. Briançonetik aurrera, mendirako gerturaztea hasten da.

Portu txiki bat zeharkatu eta gero, Haran Estua izeneko leku eder batean kokatu ginen, non italiar turista asko joan ohi den. Egunsentiarekin hasi genuen igoera. Aterpea dagoen basetxera ailegatzean gailurra ikusi genuen lehen aldiz, baseliza ere ikus ahal izan genuelarik.

Bidea nondik doan argi ikus daiteke beti. Hasieran, batez ere, bidea aldaparik gabekoa da eta hauek heltzen direnean, bideak ona izaten jarraitzen du. Hasieran, basoan zehar doa, gero loredun zelaiak zeharkatzen ditu eta azkenik haitz batzuen eta lur gorrika tartean sartzen da.

Igotzean, hain elur gutxi ikusten zen, non ez zirudien Alpeetan geundela. Dena den, ur asko ikusten da, gailurretik gertu ere. Bakarrik irten ginen, baina gurearekin beste bide batzuk batu ahala, gero eta jende gehiago aurkitu genuen.

Mont Taborrera ailegatzean ikusmira zabala aurkitzea espero genuen, Mont Blanc gailurrekin erdian disdiratzen, baina zoritxarrez, zerua estalita zegoen. Baseliza barruan dagoen liburuan izenpetu eta zerbait jan ondoren, denbora luzea gailurrean pasatzen saiatu ginen, eguraldia deserosoa izan arren, altuerara moldatzeko asmoz.

Nebero bakanak irriztatzeko aprobeztatu, bide desberdin batek jaitsi ginen Laku Zuriraino. Gero, azken gudako trintxeren arrastoak ikusi genituen. Behin behean, zerbait jan eta ibaiaren ur hotzetan murgildu ondoren, Frantziatik Italiara pasatu ginen, inolako mugarik aurkitu gabe, hurrengo igoeraren abiapuntuan kokatzeko asmoarekin.

POINTE SOMMEILLER

Haran Estua uztean, oso turistikoa den Bardonecchia herrira joan ginen. Gainontzeko bidaia astuna suertatzen da; errepidea bideguzet betetzen denez astiro joan behar da, eta heldu ginenerako, ilun zegoen.

Biharamunean pixka bat beranduago altxatu ginen. Hala ere, eguzkia aterpe goian dagoen muinoren gainean agertu baino lehen hasi ginen ibiltzen. Kotxe batzuk bidetik aurrera jarraitzen zuten, baina guk oinez egin genuen igoera osoa. Bestea baino malkartsuagoa den gailurra begi bistan eduki genuenean, zuzenean igo ginen, markatutako bidea alde batera utziz eta erreka baten ertzetik jarraituz. Harri solteko azken aldapa igoera gogortu egin zuen.

Pointe Sommeillerera ailegatzean, lehen udako eskia egiten zen glaziar txiki bat agertu zen gailurraz bestaldean. Oraindik agertzen dira, hor hemenka, erremonte zaharren arrastoak, aintzinako errepidea eta eraikin zahar bat. Aldapa izoztu hartatik igotzeko zorrian egon ginen, baina behin goitik ikusita, aukerarik onena ez zela konturatu ginen.

Zerua aurreko egunean baino argiagoa zegoenez, Mont Viso eta Barre des Ecrins ikus ahal izan genituen. Laino mehatxagari batzuk agertu arren, ia ordu bat igaro genuen gailurrean, har-kaitz batzuren pean. Gero, arin-arin jaitsi ginen, hurrengo mendirako bidaia ahalik eta lasterren hasteko asmoz.

ROCHEMELON

Berriro Bardonecchian, Susaraino -bisitatxo bat merezi duen aintzineko hiri bateraino- jaitsi ginen. Bidaian, mota askotako zuhaitzak ikusi genituen, haien artean pagadi haundi batzuk nabarmentzen zirelarik. Iluntzean heldu ginen, argiz beteriko harana gainetik ikusten zelarik.

Mendiko alde batetik azaldu zen eguzkiak iratzartu gintuen. Orduan, oso gertu eta goian ikusi genuen gailurra, baita aterpea ere.

▲
Goiko aldean.
Lac Blanc, Grand Seru eta
Grand Adret
Eskuma aldean
Ludwigshöhe gailurra
▼

Harana estaltzen zuten hodeiak, egunarekin hasi ziren igotzen, eta ibiltzen hasi ginenerako eguzkia ere estalita zegoen. Belarreko alda-pa gogorra, zegoen bide onari esker erraztu zen. Aterpera heltzean, urik ez zegoela konturatu ginen, eta generaman ura kontuz edan behar izan genuen. Igoeraren bigarren zatia, harrizkoa izanda, lehena bezain gogorra suertatzen da.

Nahiko goian geundela, bapatean gailurra agertu zen, eta orduan konturatu ginen ez zela batere erraza izango. Bidea, paretatik zuzenean igotzen da eskilara baten moduan, baina soka finkoek dagoen altura haundiak sortzen duen zorabioa menperatzen laguntzen dizute.

Harrigarria suertatzen da gero, gailurrean bertan, irudi haundi bat eta eliza bat aurkitzea. Bagenekien aterpe bat zegoela; izan ere, eguraldi ona izatekotan, han lo egiteko asmoa geneukan. Baina inolaz espero ez genuena, "hornacina" bat haritz batean sartuta aurkitzea zen, argazki eta guzti. Argazkiaren azpian honelako esaldia agertzen zen: "A Fiocco, mio unico vero amico". Esan beharra dago "amico" hori, argazkian harro-harro agertzen zena, "cane" bat zela!.

Ipar aldean glaziar haundi bat badago ere, harrigarria da 3500 m.ko gailur batera praka motzean eta elurrik ikusi gabe igo ahal izatea. Hodeiertzea estalita zegoen eta ezin daiteke beroa egiten zuela esan. Ordu bat pasa ondoren, arin arin jaitsi ginen, aurkitu genituen zeharkaldi guztiak erabiliz. Jaitsi ahala, lainoak gero eta ilunagoak ziren eta aparkalekura heldu ginenean euria hasi zuen. Ordu batzuk beranduago, Torino-Milano autobidean geundenean, euri bortizki ari zuen.

LUDWIGSHÖHE GURE LEHEN LAUMILAKOA

Ibarraz-ibar eguzkiaren atzetik

Moldaketa eta entrenamendurako planak burutu ondoren eta gure lehen laumilakoa igo baino lehen, egun bateko atsedena hartzea erabaki genuen, baina erauntsi baten ondorioz, atsedena ustia baino gehiago luzatu zen. Hasieratik Punta Indren teleferikoko bidea aukeratu genuenez, Sesia haranaren zehar abiatu ginen, eta behin Alagna izeneko herrian inguruneak ezagutzen ihardun genuen, mendi tontorrek zuritzen ziren bitartean. Horrela Walser Museoa ezagutu genuen, VIII. mendean Valaistik Monte Rosaren inguruetaraino hedatu zen kultura bati buruzkoa. Ohitura asko mantentzen dira bizi-rik gaur egun ere, haien artean egurrezko eraikuntza bitxiak.

Beste egun batetan Vogna ibarratik ibili ginen, pazientzia bukatu zitzaigun arte, orduan Gressoney ibarrera abiatzea erabaki genuen. Hau ere, Walser kultura eraginpean eta aipatutako lehena baino turistikoa da. Bertan Saboyako Gaztelua ikusi genuen, nondik, eguraldi ona badago, Liskammeko bi tontorrek ikus daitezkeen; mendiaren hasieran eraikia, Margarita Erreginarean udarako bizilekua zen.



Aterperainoko bidea

Lau egun eguzkia noiz aterako zain, zero urdineko lehen goizean inolako dudarik gabe gora jo genuen Paso del Salati telekabina hartuz. Eguzkiak, bi mila bostehun metro tara jaitsitako elurra arin urtzen zuen, itzalpeko sokoetan ezik. Pico Stolleberg inguratzean, klabijaz eta sokaz zihurtatutako harrizko pasabide arriskutsu batean, elururrekin topo egin genuen. Punta Indren teleferikoan, Alpeetako irudiek aldentezinak ditugun glaziarretan barneratu ginen azkenean, hauetariko lehenean leize pare bat salto batez igaro behar izan genituelarik.

Gero, babesgabeko pasaguneak dituen paretatik zuzen igo behar da; handik, sokaz gain, trinkatutako enborrak ere aurkitzen dira. Beste glaziar txiki bat zeharkatu ondoren, nondik irtetzeko metalezko eskilara bat erabili behar den, Gnifetti Aterpera heldu ginen; Alpeetako handienetariko bat da hau, seracs jausi nabarmen baten ondoan kokatua eta altuera handian dagoen arren, burututako aklimatazio planei esker, ez genuen ezer berezirik nabaritu.

Igoera oroimengarria

Eguzkia ateratzerakoan bidea berriro hartu genuen. Kordadak osaturiko ilada luze batek aurreko egunetako elurteek desagertarazi zuten aztarna berrazaleratzen zuten. Pirámide Vincenterako ohiko bidea ikustean, askok eten bat egin zuten, hala ere inork ez zuen aurrera jarraitzeko erabakia hartzen. Guk ere handik igotzeko asmoa geneukan, baina 20 cm. elur jausi berriarekin leizeak izkutatzean, ez arriskatzea zuhurtzat jo genuen eta, besteak bezala, aurrera jarraitu genuen Zermatera begiratzen duen lekuraino.

Hemen bai, denok gelditu ginen, batzuk handik bertatik bueltatuz eta gehiengoak Cabaña Margaritaraino jarraituz. Gu, geure partez, aterperaino heltzeko gai eta desiraz sentitzen ginen, baina gure helburu nagusia Mont Blanc izanda eta irteera hau horretarako entrenamendua besterik ez zenez, ez genituen gure indarrak agortu nahi; beraz, hurbileko tontorrera abiatu ginen. Horretaz gain, Chamonixera eguraldia aldatu baino lehen heltzea komeni zitzaigun.

Tontorrera falta zitzaizkigun 100 m-ak. emozioz beteta gertatuko litzazkiguke. Hasteko, zorrotasun aldera heltzeko, izoztutako zati bat pasa behar izan genuen; gero, behin aristan eta hau zorrotzegia aurkituz, beste aldera pasatzea erabaki genuen, hango elurra, hegoaldeko zuzenbideak eragina bigunegia izan arren. Aztarna sakon bat aldapan eginez zorrotz behekaldeetik nolabait aurreratu genuen, arista nahiko zabala izan arte, handik ibili ahal izateko. Orduan, kontu handiz, poliki poliki, Ludwigshohea osatzen duten hiru aristak batzen diren lekuraino heldu ginen.

Panorama izugarria zen, benetan. Hedadura handiko glaziarrek ikusten genituen eta inguratzen gintuzten itzelezko mendiek negu giroa ematen zuten elurte berri jautiketara zela eta. Tontorretik, Liskamm eta Corno Nero saiatu zuten bi talde bakarrak atzeratzen ikusi genituen.

Elurraren baldintzek utzi izan baligute, beste bidetik jaitsiko ginatekeen, baina ez zen horrela, eta geure aztarnak jarraituz jaisten hasi ginen. Balmenhorn ondoan geldialdi bat egin genuen, mokadu bat hartzeko; geundenetik tontorrera desnibel txikia zen, baina harrizko bideak krampoak kentzera behartzen zuen. Pirámide Vincent ere, oso eskura agertzen zen, baina igotzeak teleferikoa galtzeko arriskutan jartzen gintuen, beste igoera bat egiteko ideia baztertu genuen.

Jaitsi ahala, elur biguina krampoipean pilatzen zihonan eta azkenean kendu behar izan genituen. Aterpera heltzean, tontorrek irla bihurtzen zituen hodei itxaso batetan murgildu ginen. Gero bide arruntetik jaitsi ginen, telekabina hartzeko garaiz helduz.

Hurrengo egunean merezitako atsedena hartu genuen Aosta ibarra lasaitasunez zeharkatuz. Courmayeuretik Mont Blancaren hegoaldeko aurpegia ikus genezakeen eta 11,6 Km.tako tunel batetik mendipea zeharkatu ondoren, iparraldeko aurpegia ere agertu zitzaigun. Gutuneko irudi hauekin geratu behar izan ginen, zeren eta Irailaren hasieran egon arren, elurteak aurreikusten ziren bi mila metrotan, zeintzuk mendiko udari bukaera ematen zioten.

Noiz eginda

1994ko abuztuaren amaiera/irailaren hasiera. □